



<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
<b><i>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</i></b>		

Bileraren datuak:

Data: 2013-02-21 Tokia: Santa Clara jauregia Ordua: 17:00etatik 19:15etara

Bertaratu dira:

Enclave de ciudadanas pr Getxo: Charo De la Peña

Gizatiar: Mariví Peñaredonda, Carmen Peña

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Roda: Clara Lorenzo

Udaleko Alderdi Sozialista: Teresa García Oviedo, Inés Becares

Alderdi Popularra: Ana Basilio

Bildu: Maitane Nerekan

EAJ-PNV: Elena Coria

ELA-STV: Elvira Lemona

Lehendakaria: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Ez dira bertaratu:**

Getxo Enpresa

Gai-zerrenda:

- 2012ko Jarduera Planean aurreikusitako jardueri jarraipena, analisia eta balorazioa egitea (III. Berdintasun Plana)
- 2012ko Berdintasun Zerbitzuaren Laneko Plana berrikustea, eta 2013ko plana proposatzea

## **Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren adierazpen instituzionala**

Gai-zerrendarekin hasi aurretik, Berdintasuneko zinegotziak jakinarazi du udalbatzara eramango dela BERDINSAREA emakumeen berdintasunerako eta indarkeriaren aurkako euskal udalerrri sarean adostutako adierazpen instituzionala. Adierazpen-proposamena informazio-batzordera eraman zen, eta gehiengoz onartu zuten, baina ez aho batez.

Bilduren ordezkariak adierazi du bere taldeak parte-hartzeari uko egin ziola, adierazpena Berdinsarearena zelako (Eudelek sutatuta), eta, alderdi politikoa den aldetik, ez dator bat Eudel udalerrien elkarte izatearekin. Halaber, adierazi zuen beste udalerrietan adierazpen-proposamen ezberdina aurkeztu badute, Getxon ez dutela horrela egin, Berdintasun Batzordean duten parte-hartzearekin kontsekuenteak direlako.

### **2012ko Jarduera Planean aurreikusitako jardueri jarraipena, analisia eta balorazioa egitea (III. Berdintasun Plana)**

Berdintasuneko zinegotziak, hasteko, 2012ko jardueren jarraipenari buruzko datuak gogoratu ditu: **% 75,53 burutu da, % 10,99 burutzen ari da, eta % 16,48 ez da burutu; beraz, betetze-maila ona dela baloratu du.**

Talde guztiek bilera baino astebete lehenago jaso dute dokumentazioa, eta, horregatik, galderak edo ekarpenak egitea proposatu da, metodologia gisa, jarduera guztiak banan-banan berrikusten hasi gabe.

Burutu gabe geratu diren jardueri buruzkoa izan da bilera.

- Jabekuntza-eskolako amona zaintzaileentzako tailerra oso positiboki baloratu da, eta PSEk aitonentzako tailerra egitea proposatu du.

Berdintasuneko teknikariak uste du arazo ezberdinak jorratzen dituzten ikastaroak direla, eta bi kasuetan zainketarako eta autozainketarako denborak negoziatu behar direla; baina amonek bizi osoa besteak zaintzen eman dute, gainontzekoen biziaren lehenesten, emakumeei eman zaien zaintzaile-rola dela eta; aiton askorentzat, ordea, berria da zainketarena, eta, horregatik, beste eduki batzuk jorratuko lirateke, eta ziurrenik ez legokioke Berdintasun Zerbitzuari tailer horiek antolatzea. PNVko ordezkariak eta gizarte zerbitzuetako zinegotziak adierazi du bere sailean jada tailerrak ematen ari direla pertsona zaintzaileentzat.

- eta Eskuz-Esku elkarteek galdetu dute zergatik ez den autozainketaren tailerrik egin 55 urtetik gorako gizonentzat; izan ere, Planaren jarraipeneko agirian azaltzen den bezala, Nagusien Etxeak tailerra ez antolatzea baloratu bazuen ere —urte

hasieran gainontzeko tailerrekin batera eskaini eta inork interesik agertu ez zuelako—, elkarteek uste dute udalerriko beste gizonezko batzuei eskain zitzaiekeela.

Berdintasuneko teknikariak uste du garrantzitsua dela jarduera hori Nagusien Etxearekin batera ematen jarraitzea, eta datorren urterako uztea, Nagusien Etxeak proposatutakoari jarraiki. Era berean, argitu du tailerreko parte-hartzaileak ez direla Nagusien Etxeko bazkideak bakarrik, eta beste aukera bat gizarte zerbitzuak direla; halaber, Getxoberritik eta beste komunikabideetatik etorritako gizonezkoak badira. Bestalde, tailerra 55 urtetik gorakoentzat izatearen arrazoia da Nagusien Etxeko bazkide egin daitezkeela adin-tarte horretan.

- PSEk egin gabe geratu diren bi jarduerak azpimarratu ditu, hirigintzarekin eta genero-ikuspegiarekin zerikusia dutenak, (HIGA2.1. Ingurumenaren Foroan eta Hirigintza plangintzaren Kontseilu Aholkularitzan parte hartzen duten pertsonentzako genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza-jarduerak egitea eta NO1.3. Hirigintza, Ingurumena eta Getxolaneko teknikarientzako prestakuntza diseinatzea eta garatzea, berdintasunari eta genero-ikuspegiaren integrazioari buruz, dagozkien eremuetako politika zehatzetan.)

Berdintasuneko zinegotziak ziurtatu du lantaldeen prestakuntzan barne hartuko dela generoari eta hirigintzari buruzko formazioa. PSEren ordezkariak esan du ez dagoela ados udalerriko biztanleek lantaldeetan prestakuntza jasotzearekin (uste du nahitaezkoa dela prestakuntza ematen duen enpresak beharrezko ezagutzak izatea), baina uste du badela garaia teknikariak prestatzeko, paraleloki.

- zergatik ez den ikastetxeetako guneak antolatzeko diagnostikorik egin. Berdintasuneko zinegotziak esan du une honetan uste duela garrantzitsua dela errekurtsoei erabilera ona ematea, eta, ustez, ez dela lehentasunezkoa, izan ere, batetik, eskoletako patioen erabilera ez da udalaren eskumena, eta, bestetik, ikastetxeek eurek ez dute jarduera egiteko interes berezirik agertu.

-Berdintasunari buruzko udal araudia prestatzeari dagokionez, gaiari buruz eztabaidatu dute. Berdintasuneko zinegotziak azaldu du Berdintasunarekin prestatutako araudi-markoaren aurkezpenean, prozesuen garrantzia azpimarratu zela, hau da araudia metodologia parte-hartzaile batekin prestatu behar zela, eta, beraz, denbora eta errekurtsuak izatea nahitaezkoa zela. Aintzat hartuta araudia berdintasunerako euskal legearen aldaketa hutsa dela, eta betebeharrak hori legeak jada jasotzen duela, ez du lehentasunezkoa ikusten araudi hori prestatzea, are gehiago, Tolosan ikusi bezala, oztoporik zailenak alde batera utzi badira udalean arauak ezartzerako garaian (gizonezkoen elkartei dagokienez).

Edonola ere, gaia ez dago amaituta, eta araudia idaztea komeni den aztertzen ari dira.

Berdintasuneko teknikariak uste du araudia legearen aldaketa bat besterik ez dela, eta bata eta bestea nahitaez bete behar direla; dena den, udal-eremura jaistek udal-langileek legearen edukia ezagutzeko balio dezake, tokiko betebeharre dagokienez, eta haiek betetzeko beharra senti dezatela. Euskararen araudia adibide bat da, bete beharrekoa baita, norbait gaiarekin sentsibilizatuta ez badago ere.

- PSEk proposatu du araudi bat egitea tokiko protokoloaren betearazpenari buruz, tratu txarrak eta eraso sexualak jasan dituzten emakumeei arreta emateko. Erakundeen arteko akordio bat besterik ez den protokoloari buruzko araudia egiteak zentzurik baduen eztabaidatu dute. PSEk eta Eskuz esku elkarteak uste dute foro honetan informazioa eman beharko litzatekeela protokoloaren jarraipen-bilerei buruz. Berdintasuneko zinegotziak esan du foroak ez diola bere jarduerari buruz zertan informatu behar beste foro bati, eta, gainera, protokoloaren jarraipen-bileretan pertsoneri eragiten dieten informazio konfidentziala erabil daitekeela; beraz, uste du ez dela bidezkoa Kontseiluari informatzea. Protokoloan bertan sortutako ad hoc organoan egiten zaio protokoloari jarraipena, eta hura da jarraipen-batzordea.

- Berdintasun Kontseiluaren logoari buruz galdetu dute. Berdintasuneko zinegotziak erantzun dio kontsultarako kontseilua denez, haren egitekoen artean ez dagoela jarduerak antolatzea, ezta deitzea ere, beraz, ez du uste logorik falta zaionik. Berdintasuneko teknikariak esan du udalerrri guztietan kontseiluak kontsultarako diren arren, haietako askok martxoaren 8ko jarduerak Udalaren eta kontseiluaren sinadurekin deitzen dituztela. Berdintasuneko zinegotziak azaldu du ziurretik beste egiteko batzuk dituztela esleituta; dena den, gogoratu du martxoaren 8ko prentsa-oharretan eta beste batzuetan beti jakinarazten dela kanpaina kontseiluaren laguntzarekin antolatzen dela, han proposatzen baita jorratu beharreko gaia.

- Gizatiar elkarteak esan du kezkatuta dagoela Romo-Areetako haurtzaindegian plazak falta direlako, eta uste du garrantzitsua dela jakitea zeintzuk diren benetako beharrak. Bestalde, galdetu du Egunsentia haurreskolara joateko garraio publikorik badagoen, han plaza hutsak daudelako; berdintasuneko zinegotziak erantzun dio 0 urtetik 3 urtera arteko haurrak direnez, ez dela garraio publikorik jartzen. Gogoratu du, halaber, Eusko Jaurlaritzari dagokiola gaia, eta Romoko haurreskolari dagokionez, haren erantzuna jasotzeko zain daudela.

- Enclave elkarteak informazioa eskatu du Getxoko guraso bakarreko familien egoerari buruzko diagnosiari buruz. Berdintasuneko teknikariak esan du gizarte langileek eurek proposatutako jarduera bat dela, Berdintasunerako Planaren prestaketaz arduratzen diren talde-bileretan. Erantsi du Gizarte Zerbitzuetako jarduera bat den arren, Berdintasuneko Zerbitzuak bultzatu behar zuela, eta egia esan —beste jarduerekin gertatu den bezala— ez duela horrela egin, denbora mugatua duelako eta lan-zama ugaria.

Proposatu dute Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea jarduera aurrera eramatea garrantzitsua dela, bai zehazki, bai Getxoko familien egoerari buruzko diagnostiko zabal baten barruan.

- Enclave elkarteak generoaren zulo digitala gainditzeko prestakuntzari buruz galdetu du, Getxolani dagokiona eta burutu ez duena, alegia. Berdintasuneko teknikariak azaldu du, batetik, Getxolani dagozkion jarduerak betearazpen txikiagoa izan dutela, izan ere, aldaketa-garaian daude, lokala tokiz aldatu dutelako eta gaitasunak berregokitu direlako; beraz, Berdintasuneko Zerbitzuak uste du ez dela une egokia gaia gehiago jorratzeko. Bestetik, jarduera zehatz honi dagokionez, uste du agian zaharkituta geratzen ari dela, izan ere, badirudi orain antzematen den zuloak zerikusi handiagoa duela adinarekin sexuarekin baino. Eskuz esku eta PSE elkarteek tesia baieztatu dute, ikerketak eta Eskuz esku elkarteak antolatzen dituen ikastaroen eskaera ikusita, non informatikako ikastaroen maila gero eta handiagoa den.

2013an jarduera kentzea proposatu dute.

- Enclave elkarteak uste du gizonentzako tailerrak jabekuntza eskoletan kobratzen diren modu berean kobratu beharko lirатеkeela. Berdintasuneko teknikariak esan du kudeaketa errazteko egin dela horrela, eta izen-emateko ahalik eta erraztasunik gehien eman nahi izan direla; hala ere, aitortu du arrazoia dutela, eta gogoan hartu du, hurrengo deialdirako.

- Enclave elkarteak debekatutako hiriaren mapari buruzko jarduerari buruz hitz egin du; haren jarraipen-agiriak dio bilera egin dela, baina ez da azalpen gehiagorik eman oraingo egoerari buruz. Berdintasuneko Zerbitzuak azaldu du gaia jorrratu dutela, eta proposatu du bere garaian egindako jarduera-proposamen eta esku-hartze guztiak eraman daitezela hurrengo Kontseilura. Proposamena onartu dute.

**2012ko Berdintasun Zerbitzuaren Laneko Plana berrikustea, eta 2013ko plana proposatzea**

Ikusita 2012ko jardueren berrikusketak bat egin duela Planarekin, Berdintasuneko zinegotziak 2013ko Laneko Plana berrikusi du; ez zaio objekziorik jarri.

Eta jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman dute.

### **Hurrengo bilera**

Hurrengo bilera apirilaren 11n izango da, 17:00etan.